



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko martxoaren 10a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia), Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra (3. or.).
- Foru Lege proiektua, arautzen dituen energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, bero-tegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga (7. or.).
- Foru Lege proiektua, 5.498.455 euroko kreditu berezia ematekoa, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sartzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (18. or.).
- Foru Lege proiektua, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsirik Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez. Aurkeztutako zuzenketak (21. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (22. or.).
- Foru Lege proiektua, 5.498.455 euroko kreditu berezia ematekoa, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sartzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena (23. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Zuzenketak aurkezteko epearen aldaketa (27. or.).

E SAILA:**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bertan behera utz dezan Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen 2012ko maiatzaren 7ko erabakiaren luzapena, erabaki horren IV. eranskinaren bosgarren idatz-zatiari dagokionez. Pakti Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (28. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren inbertsioak ezar eta egin ditzan, Reina Sofía Ospitalearen gabeziak konpontzeko, eta Erriberako osasun etxe eta anbulatorioetako analitika guztiak Reina Sofía Ospitaleko laborategian mantentzeko. Osasun Batzordeak onetsia (30. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Tafallako “Marqués de la Real Defensa” ikastetxe publikoaren gabeziei buruz, eta gabezia horiek konpon ditzan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (30. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proiektu balioaniztun eta berritzaile bat taxutu dezan, Iruñeko San Frantzisko ikastetxe publikoko patioa estaltzeko. Hezkuntza Batzordeak onetsia (31. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, azalera handiko saltokien gaineko zerga dela-eta Europar Batzordeak emandako ultimatumari buruzkoa. Amaya Zarranz Errea andreak egin du (32. or.).
- Galdera, Club Atlético Osasuna-ren kontuetan detektatutako irregulartasunei buruzkoa. Bikendi Barea Aiestaran jaunak egin du (33. or.).
- Galdera, jakitekoa nola kudeatu dituzten Osasun Departamentuak eta La Caixak HIESarekin lotutako prebentzio eta jarduketa programetarako Gobernu Kanpoko Erakundeei emandako dirulaguntzak. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin du (33. or.).
- Galdera, Osasunak partidak eroste aldera egindako mugimendu ekonomikoei dagokienez jakinaren gainean zegoen Ogasuneko teknikariari buruzkoa. Maite Esporrín Las Heras andreak egin du (34. or.).
- Galdera, partidetako emaitzetan marro egiteko Club Atlético Osasuna-tik eskudirua ateratzen zela bazekeen Ogasuneko ikuskatzaileari buruzkoa. Txema Mauleón Echeverría jaunak egin du (35. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia), Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2015eko otsailaren 27an hartutako erabakiaren bidez, honako foru proiektu hau aurkeztu du: "Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia), Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea honako foru lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia: "Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia), Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra".

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia), Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra

ZIOEN AZALPENA

Araudi fiskala aldatzeko eta jardura ekonomikoa pizteko neurriak hartzeko abenduaren 24ko 29/2014 Foru Legeak hainbat agindu aldatu ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuateginean (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia).

Aldaketetako batek aipatu testuateginaren 60. artikuluan du eragina, hau da, aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga-tasak ezartzen dituen horretan.

60. artikuluko horren eskalan, aipatu 29/2014 Foru Legeak onetsia baita, bada desadostasun bat onetsitako karga-tasen eta ateratzen den kuota osoari dagozkion kopuruen artean.

Honela gelditu da 29/2014 Foru Legeak onetsitako eskalaren taula:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		6.000	19
6.000.01	1.080	12.000	21
18.000.01	3.720	Gainerakoa	23

Begi bistakoa da lehen 6.000 eurori dagokien kuota osoa 1.140 eurokoa dela eta ez 1.080 eurokoa. Eta lehen 18.000 eurori dagokien kuota osoa ez dela 3.720 eurokoa, 3.660 eurokoa baizik.

Ulertu behar da, tasen eta kuotaren arteko desadostasun bat baino gehiago akats bat dela, eta zuzendu egin behar dela 60. artikuluko eskalaren taula aldatuta; jakina, onetsitako karga-tasetatik abiatuta, hau da, % 19tik, % 21etik eta % 23tik.

Bestetik, Hitzarmen Ekonomikoaren Negoziazio Batzordean Estatuarekin lortutako akordioen ondorioz, Foru Komunitateak Estatuan den araudi bera aplikatu beharko du energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan. Energia elektriko berriztagarria ekoizteko Nafarroan kokatuta dauden instalazioen titularrak diren zergadun txikiei kalterik ez sortzearen, zerga horren aurreko araudian salbuetsita baitzeuden, kenkari bat ezartzen da zergadun horientzat pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren kuota diferentzialean, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga dela-eta ordaindutako tributu-kuotagatik.

Bestetik, Araudi fiskala aldatzeko eta jarduera ekonomikoa pizteko neurriak hartzeko abenduaren 24ko 29/2014 Foru Legeak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 51. artikulua aldatu du. Aipatu 51. artikuluen gaur egungo testuan, benetako kuota eta gutxienerako tributazioa arautzen baititu, hutsune garrantzitsuak atzeman dira zerga kontzeptuak zehazteko eta haien edukia ulertzeko orduan. Bi hutsuneak konpontzearen, beste testu bat proposatzen da aipatu 51. artikuluentzat.

Lehendabizi, 51.2 artikuluko benetako kuotaren kontzeptuak ez du inolako argitasunik ekartzen gutxienerako tributazioan. Areago, nahasmendua dakar. Horregatik, kentzea proposatzen da.

Gainera, gutxienerako tributazioaren beste kontzeptu bat ezartzen da, gaur egun indarra duenari estu lotua, baina haren akatsik gabea. Horrela bada, gutxienerako tributazioaren kontzeptu berria (orain 51. artikuluko 2. idatz-zatian kokatua) bi helburu bilatzen dira:

1.Hura argitzea eta ulergarriagoa egitea.

2.Teknikoki hobetzea; izan ere, hutsune batzuk atzemanak ziren barreneko eta nazioarteko zergapetze bikoitzagatik kenkariaren aplikazioan, biak kenkari teknikoak izanik, aplikatzen zizutzen enpresak gaizki ateratzen baitziren gutxienerako tributazioa konputatzeko garaian. Adibide gisa, holding sozietateek ezin zuten osorik aplikatu dibienduentzako kenkaria.

Bestetik, egun indarra duen formularen arabera, tributazioaren gutxienerako murrizketa zerga-tasaren proportziokoa denez, paradoxa gertatzen da: zenbat eta zerga-tasa handiagoa aplikatu, txikiagoa da gutxienerako tributazioa, eta horrek ez du zentzurik.

Azkenik, foru legearen 70. artikuluari egiten zaion aipamena gehitzen zaio 51. artikuluen testuari, haren 1. idatz-zatian berariaz esaten baita foru lege honen 51.3 artikuluan araututako tasak ez duela eraginik izanen zinema-ekoizpenetako inbertsioengatik kenkarian.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrari dagokionez, 99.5 artikulua, jakinarazpen elektronikoa arautzen duena, aldatzen da, administrazio publikoen zein herritarren beraien segurtasun juridikoa eragina duten akats tekniko garrantzitsuak konpontzearen. Izan ere, 99.5 artikuluen bigarren lerroaldeak, jakinarazpen elektronikoa errazteko asmoz, beste helbururik gabe, nahi zuen Nafarroako Zerga Ogasuneko tributudunak baino ez direnek Foru Komunitateko jakinarazpen elektronikoen prozeduran bakarrik alta eman behar izatea. Hala ere, zehaztu behar da bai Nafarroako Zerga Ogasunak bai administrazio publiko gehiengehienek helbide elektronikoa gaitua (HEG) aukeratu dutela jakinarazpen elektronikoen sistema gisa. Sistema horretan postontzi elektronikoa bakar bat dago zergadun bakoitzarentzat, eta hartan uzten dituzte jakinarazpenak administrazio publiko guztiek, tributu arlokoak izan edo ez; hortaz, oker pentsatzea da zergadun horrek postontzi baten baino gehiagoren zain egon behar duela bere jakinarazpenak jasotzeko. Postontzi batera bakarrik jo beharko du. Gainera, 99.5 artikuluen bigarren lerroalde horretan proposatzen den sistemak eragin du beste administrazio publiko batzuek beren desadostasuna agertu izatea, haien eskumenetan sartu delakoan; izan ere, Foru Komunitateak ezin du arautu nolako jakinarazpenak egin behar dituzten gainerako administrazio publikoek. Horrela, tributudun batek bere zergen aitortpenak Nafarroako Zerga Ogasunari aurkeztu behar izateak ez du esan nahi ez dituela beste zerga administrazio batzuekin dituen zergak bete behar. Horregatik, tributudun horrek beste zerga administrazioetako zerga jakinarazpenak jaso beharko ditu haien jakinarazpen sistemaren bidez, eta Foru Komunitateak ezin du hor sartu. Arrazoi horientatik kendu da 99.5 artikuluko aipatu bigarren lerroaldea.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietarako ondorioekin, ekainaren 2ko 4/2008

Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren hurrengo aginduek testu hau izanen dute:

Bat. 60. artikulua.

60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina zenbateraino (eurotan)	Aplikatzeko den tasa (ehunekoa)
		6.000	19
6.000.01	1.140	12.000	21
18.000.01	3.660	Gainerakoa	23

Bj. 68. bis artikulua.

68. bis artikulua. Energia elektronikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga dela-eta ordaindutako tributu-kuoten kenkaria.

1. Dagokion kuota diferentziala finkatuta dela, energia elektriko berriztagarria ekoizteko Nafarroan kokatuta dauden instalazioen titular edo titular-kide diren subjektu pasiboek, instalazio bakoitzeko potentzia instalatu izenduna 100 kW-etik gorakoa ez bada, kenkari gehigarri bat egiten ahalko dute energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga dela-eta Nafarroako Zerga Ogasunari ordaindutako tributu-kuotengatik.

2. Zer zergalditan ordaindu den, haietan ordaindutako tributu-kuotengatik eginen da kenkaria, zein den ere energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren autolikidazioari eta ordainketa zatikatuari dagokien zergaldia.

3. Energia elektriko ekoizten duten instalazioen titularkidetasunaren kasuan, titulartasun juridikoari kasu bakoitzean aplikatzen zaizkion arau edo itunen arabera eginen da kenkaria eta, haiek ez badira modu sinesgarrian agertzen, kenkaria erdibana dela ulertuko du zerga arloko administrazioak.

4 Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak foru agindu honen bidez arautuko ditu kenkari hau aplikatzeko behar diren xedapenak.

Hiru. Hamaseigarren xedapen iragankorra.

Hamaseigarren xedapen iragankorra. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga dela-eta zenbait subjektu pasibok 2014.

urtean zerga arloko beste administrazio batzuei egindako ordainketak.

2014. urtean energia elektriko berriztagarria ekoizteko instalazioen titular edo titular-kide izan diren subjektu pasiboek ere, instalazio bakoitzeko potentzia instalatu izenduna 100 kW-etik gorakoa ez bada eta 2014. urtean energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga dela-eta tributu-kuotak ordaindu badizkiete zerga arloko beste administrazio batzuei, 68. bis artikuluan arautako kenkaria egiten ahalko dute kopuru horiengatik. Kenkari hori 2015. urteko zergaldiari dagokion aitorpenean eginen da.

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietarako ondorioekin, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hurrengo aginduek honako testu hau izanen dute:

Bat. 51. artikulua.

51. artikulua. Kuota osoa eta gutxieneko tributazioa.

1. Likidazio-oinarriari karga-tasa aplikatuz ateratzen den zenbatekoa hartuko da kuota osoztat.

2. 50. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritako karga-tasen arabera zerga ordaintzen duten subjektu pasiboen kasuan, kuota osoaren gainean hobariak eta kenkariak aplikatuz ateratzen den zenbatekoa ezin izanen da hurrengo lerroaldeetan definitzen den gutxieneko tributazioa baino txikiagoa izan; aplikazio horretatik kanpo daude ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduketak egiteagatik kenkaria, 66. artikuluan arautua, ibilgetu materialeko elementu berrietan egindako inbertsioengatik kenkaria, 63. artikuluan arautua, eta zinema-ekoizpenetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatik kenkaria, 70. artikuluan arautua.

Gutxieneko tributazio-kuotaren zenbatekoa zehazteko, honela jokatuko da:

Lehena. Kuotan aplikatutako hobariak eta 59. artikuluan aipatu barne zergapetze bikoitza galarrateko kenkariak karga-tasaren artean zatituta ateratzen den adina gutxituko da likidazio-oinarria, hobariak eta kenkariak ekitaldian aplikaturik.

Bigarrena. Ateratzen den zenbatekoari % 10eko portzentajea aplikatuko zaio.

Hirugarrena. Aurreko eragiketaren emaitzari ekitaldian aplikatu diren nazioarteko zergapetze bikoitzeko kenkariak kenduko zaizkio.

% 10eko portzentaje hori % 7koa izanen da, baldin eta subjektu pasiboak zergaldian zehar gutxienez % 5 handitzen badu plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa, zergaldia hasi aurreko hamabi hilabeteekin alderatuta.

Bj. 3. idatz-zatia gehitzea 74. artikuluari.

3. Orobat, energia elektriko berriztagarria ekoizteko Nafarroan kokatuta dauden instalazioen titular edo titularkide diren subjektu pasiboentzat, instalazio bakoitzeko potentzia instalatu izenduna 100 kW-etik gorakoa ez bada, konturako ordainketatzat hartuko dira eta kengarriak izanen dira energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga dela-eta Nafarroako Zerga Ogasunari ordaindutako tributu-kuotak.

Zer zergalditan ordaindu den, haietan ordaindutako tributu-kuotengatik eginen da kenkaria, zein den ere energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren autolikidazioari eta ordainketa zatikatuari dagokien zergaldia.

Energia elektrikoaren ekoizten duten instalazioen titularkidetasunaren kasuan, titulartasun juridikoari kasu bakoitzean aplikatzen zaizkion arau edo itunen arabera eginen da kenkaria eta, haiek ez badira modu sinesgarrian agertzen, kenkaria erdibana dela ulertuko du zerga arloko administrazioak.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak foru agindu honen bidez arautuko ditu kenkari hau aplikatzeko behar diren xedepanak.

Hiru. Berrogeita hamargarren xedapen iragankorra.

Berrogeita hamargarren xedapen iragankorra. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga dela-eta zenbait subjektu pasibok 2014. urtean zerga arloko beste administrazio batzuei egindako ordainketak.

2014. urtean energia elektriko berriztagarria ekoizteko instalazioen titular edo titularkide izan diren subjektu pasiboek ere, instalazio bakoitzeko potentzia instalatu izenduna 100 kW-etik gorakoa ez bada eta 2014. urtean energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga dela-eta tributu-kuotak ordaindu badizkiete zerga arloko beste administrazio batzuei, 74.3. bis artikuluan arautako kenkaria egiten ahalko dute kopuru horiengatik. Kenkari hori 2015. urteko zergaldiari dagokion aitortpenean eginen da.

Lau. Berrogeita hamaikagarren xedapen iragankorra.

Berrogeita hamaikagarren xedapen iragankorra. Zerga-taldeak.

2014ko urtarrilaren 31n indarra duen Hitzarmen Ekonomikoaren 27. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, zerga-baterakuntzaren araubideko araudi komunari jarraituz 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen ordaintzen duten zerga-taldeek aukera izanen dute tributu-araubide horrekin jarraitzeko 2014ko abenduaren 31 arte; betiere, hura aplikatzeko, zerga-baterakuntzari buruz une bakoitzean indarra duen araudi komunean aurreikusten diren baldintzak betez gero.

Nafarroako Zerga Ogasunari emanen zaio hau-tuaren berri eta balioa izanen du harik eta xedapen honetan aurreikusitako epe iragankorra bukatu arte, non ez duen interesdunak errebokutzen.

Hirugarren artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 99. artikuluko 5. idatz-zatiak testu hau izanen du:

5. Jakinarazpena baliabide elektronikotik egin ahal izateko, interesdunak espresuki eskatu edo baimendu beharko du.

Aurrekoa galarazi gabe, erregelamendu bidez finkatzen ahalko da nahitaezkoa dela jakinarazpen elektronikoa egitea pertsona fisiko ez diren tributudunentzat.

Jakinarazpen elektronikoen sistemak aukera emanen du zehatz jakiteko zer egun eta ordutan uzten den interesdunaren eskura jakinarazpenaren xedeko egintza, baita interesdunak noiz ikusi duen edukia ere, jakinarazpena une horretatik aurrera egindakotzat joko baita legezko ondorio guztietarako.

Jakinarazpena interesdunaren eskura dela ziurtatuta, hark edukia ikustera sartu gabe hamar egun natural iraganez gero, jakinarazpena errefusatutzat joko da, artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako ondorioekin, salbu eta, ofizioz edo hartzaileak eskaturik, edukia ikusteko ezintasun tekniko edo materiala dagoela frogatzen bada.

Jakinarazpen elektronikoa modu hauetako baten bidez eginen dira, erregelamendu bidez ezarritakoari jarraituz:

a) Helbide elektronikotik gaituaren bitartez (HEG).

b) Jakinarazpena jaso izanaren adierazpena duen posta elektronikoen sistemaren bat erabiliz.

c) Ezar litekeen beste bideren bat erabiliz, betiere araubide berariazkoan ezartzen diren epe eta baldintzetan jakinarazpena jaso dela ziurtatzen bada.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

Foru Lege proiektua, arautzen dituen energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2015eko otsailaren 27an hartutako erabakiaren bidez, foru lege proiektu bat aurkeztu du, arautzen dituen energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1.- Osoko Bilkuraren esku jartzea ea foru lege proiektu hori, arautzen dituen energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga, zuzenean eta irakurketa bakarrean izapidetuko den erabakitzea.

2.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3.- Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, arautzen dituen energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak Hitzarmen Ekonomikoaren Negoziazio Batzordean sinaturiko akordioaren indarrez, Nafarroarena izanen da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren ordainarazpena, argindarra ekoizten duen instalazioa lurralde horretan kokaturik badago. Instalazioa Nafarroako lurraldean eta lurralde erkidean baldin bada, zergaren ordainarazpena hura baimentzeko eskumena duen administrazioarena izanen da.

Zerga honek karga ezartzen du argindarra ekoizteko eta sistema elektrikoan sartzeko jardueren gain; haren ordainarazpenean, Foru Komunitateak aplikatzen dituen arau oinarritzko eta formalek Estatuak ezartzen dituen eduki berdina izanen dute.

Orobat, akordioa egin da Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergaren ordainarazpenerako. Tributu hau gas horien kontsumoaren gain ezarri da, atmosfera berotzeko duten ahalmenean oinarriturik; hartan, Foru Komunitateak aplikatzen dituen arau oinarritzko eta formalek Estatuak ezartzen dituen eduki berdina izanen dute.

Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergaren ordainarazpena Nafarroarena izanen da azken kontsumitzaileek Nafarroan kokaturiko instalazio, ekipo edo aparatuetan erabiltzen dituztelarik zergaren xede diren produktuak. Berotegi-efek-

tuko gas fluordunak autokontsumorako direlarik, ordainarazpena Foru Komunitatearena izanen da, autokontsumo hori lurralde horretan gertatzen bada.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean aipatu Negoziazio Batzordean sinaturiko akordio beretan hitzartu denez, kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergaren ordainarazpena Nafarroarena izanen da, baldin eta lurralde horretan badaude hirugarrenen funtsak gordetzen diren egoitza zentrala, sukurtsalak edo bulegoak. Bertzalde, Foru Komunitateari egotziko zaizkio bezeroa bertan egotea behar ez duten merkaturatze sistemen bidez mantentzen diren funtsak edo halako lurralde bati egozten ahal ez zaizkionak, gordailu lurralderatueta duen partaidetzaren arabera dagokion heinean.

Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga honek karga ezartzen du kreditu-erakundetan eraturiko gordailuen gain; haren ordainarazpenean, Foru Komunitateak aplikatzen dituen arau oinarriko eta formalek Estatuak ezartzen dituen eduki berdin-berdina izanen dute. Hori ukatu gabe, Foru Komunitateak zerga honen karga-tasak ezartzeko mugak eta baldintzak izanen dira lurralde erkidean aldiro indarra dutenak.

Lehenengo artikulua. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga.

Bat atala. Araubide juridikoa eta aplikatzeko araudia.

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga Foru Komunitateak galdutako du Hitzarmen Ekonomikoaren 31 bis artikuluari jarraikiz, eta artikulua honetan eta bera garatzen duten xedapenetan xedatzen dutenarekin bat.

Bi atala. Zergaren izaera.

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga izaera zuzen eta errealeko tributua da, argindarra ekoizteko eta sistema elektrikoan sartzeko jarduerak zergapetzen dituen, izanik hura zentralako barretan neurtua lau atalean aipatzen diren instalazioetako bakoitzaren bidez.

Hiru atala. Zergaren ordainarazpena.

Hitzarmen Ekonomikoaren 31 bis artikuluan ezarritakoari jarraikiz, zergaren ordainarazpena Foru Komunitatearena izanen da argindarra ekoizteko instalazioak Nafarroan direlarik.

Instalazioa Nafarroako lurraldean eta lurralde erkidean baldin bada, zergaren ordainarazpena hura baimentzeko eskumena duen administrazioarena izanen da.

Zerga honen konturako ordainketak aitzineko paragrafoetako irizpideen arabera eskatuko ditu administrazio batek edo bertzeak.

Lau atala. Zergapeko egintza.

1. Zergapeko egintza da argindarra ekoiztea eta sistema elektrikoan sartzea, izanik hura zentralako barretan neurtua Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legean aipatzen diren instalazioetako edozeinetan.

2. Artikulu honi dagokionez, zentralako barretako ekoizpena izanen da alternadorearen borneytan neurturiko energia, ken sorrerako kontsumo lagungarriak eta sarearekin lotzeko punturainoko galerak.

3. Artikulu honetan agertzen diren kontzeptu eta termino funtsezkoak dagokienez, eta bertan definitzen diren kasuetan salbu, Estatuan sektore elektrikoaren gainean dagoen araudian xedatzen denari jarraitu beharko zaio.

Bortz atala. Zergadunak.

Zerga honen zergadunak izanen dira Tributuei buruzko abenduaren 17ko 13/2000 Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak, artikulua honen lau atalean adierazten diren jarduerak egiten badituzte.

Sei atala. Zergaldia eta sortzapena.

1. Zergaldia urte naturalarekin bat etorriko da, salbu eta zergaduna instalazioan jardueran ariztetik gelditzen bada, halakoetan zergaldia bukatuko baita gelditze hori gertatzen den egunean.

2. Zerga sortuko da zergaldiaren azken egunean.

Zazpi atala. Zerga-oinarria.

1. Zerga-oinarria izanen da argindarra ekoizteagatik eta sistema elektrikoan sartzegatik zergadunak instalazio bakoitzeko eta zergaldi bakoitzean eskuratu beharreko zenbatekoa, izanik hura zentralako barretan neurtua.

Horri dagokionez, zenbateko osoaren kalkuluan kontuan hartuko dira Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legean ezarritakoaren ondoriozko araubide ekonomiko guztietan aurreikusitako ordainsariak, kasuan kasuko zergaldikoak, baita berariazko araubide ekonomikoan ere, uharteetako eta penintsulaz kanpoko lurraldeetan argindarra ekoizteko eta sistema elektrikoan sartzeko jarduerak den bezainbatean.

2. Artikulu honen lau atalean aipatu diren jarduerak zer instalaziotan egiten diren, horietako

bakoitzerako zehaztuko da atal honetan definitutako zerga-oinarria.

Zortzi atala. Karga-tasak.

Zergaren tasa % 7koa izanen da.

Bederatzi atala. Kuota osoa.

Zerga-oinarriari karga-tasa aplikatzearen emaitza izanen da kuota osoa.

Hamar atala. Likidazioa eta ordainketa.

1. Zergadunak beharturik daude zergaren autolikidazioa egitera eta kuota ordaintzera, zergaren sorrarazpenaren ondoko azaroaren barnean, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak ezartzen dituen arau eta ereduekin bat etorritik. Horretarako, kontuan hartu beharko dira ekoizpen elektrikoaren behin betiko neurriak.

2. Maiatzaren, irailaren, azaroaren eta hurrengo urteko otsailaren 1etik 20ra bitartean, zergapeko egintza gauzatzen duten zergadunek urte natural bakoitzeko hiru, sei, bederatzi edo hamabi hilabeteko epeari dagokion ordainketa zatikatua, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak ezartzen dituen arau eta ereduekin bat etorritik.

3. Ordainketa zatikatuak kalkulatuak dira zergaldiaren hasieratik aitzineko bi atalak aipatu hiru, sei, bederatzi edo hamabi hilabeteen amaiera arte ekoizten den argindarraren balioaren heinean, izanik hura zentralerako barretan neurtua; horretarako, zortzi atalean aurreikusitako zerga-tasa aplikatuak da eta aitzinetik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoaren kenkaria egiten da.

Horri dagokionez, ekoizpenaren balioetat hartuko da argindarra ekoizteagatik eta sistema elektrikoan sartzegatik zergadunak instalazio bakoitzeko eta zergaldi bakoitzean eskuratu beharreko zenbatekoa, izanik hura zentralerako barretan neurtua.

Hala ere, ekoizpenaren balioak, instalazio guztiak barne, gainditzen ez duenean 500.000 euro aitzineko urte naturalean, zergadunak behartuak egonen dira, soilik, likidazio epea azaroaren 1etik 20ra bitartean daukan ordainketa zatikatua egitera.

Aitzineko urtean zergadunak jarduketan urte natural baino denbora laburragoan aritu badira, ekoizpenaren balioa urtera goitituko da.

4. Jarduera urtarilaren 1aren ondotik hasten bada, une horretako zergaldiari dagokion likidazioaren konturako ordainketa zatikatuak egiteko, kontuan hartu beharko da zer hiruhilekotan den 500.000 euro baino handiagoa, instalazio guztiak

barne direla, zergaldiaren hasieratik kalkulatuak ekoizpenaren balioa, hiruhileko horri dagokion likidazio epean egiten baitira ordainketa horiek.

5. Zergadunak eskuratu beharreko zenbateko osoa zein den ezaguna ez bada ordainketa zatikatuak egiteko tenorean, zergadunak behin-behinekoz finkatu beharko du, sistemako operadoreak eta, hala balegokio, Energiaren Batzorde Nazionalak kasuan kasuko ordainketa egiteko epearen aitzinetik egindako azken behin-behineko likidazioaren arabera.

Hamaika atala. Arau-hausteak eta zehapenak.

Zerga honi dagokion arau-hausteak tributuei buruzko abenduaren 17ko 13/2000 Lege Orokorrean aurreikusitakoari jarraiki kalifikatu eta zigortuko dira.

Hamabi atala. Xedapen iragankor bakarria. Halako zergadun batzuek 2015eko azaroan egin beharreko autolikidazioa eta ordainketa zatikatua.

2014ko zergaldian energia elektriko berriztagarria ekoizteko Nafarroan kokatuta dauden instalazioen titular edo titularkideak izan diren zergadunek, instalazio horien potentzia instalatu nominala ez bada 100 kW baino handiagoa instalazio bakoitzeko, eta 2015ean segitzen badute hotien titular edo titularkide izaten, instalazio horiei dagokien ordainketa zatikatua baizik ez dute egin beharko, eta haren likidazio epea 2015eko azaroaren 1etik 20ra bitarte izanen da.

Aldiz, zergadun horiek berek ez dute egin beharko 2014ko zergaldiko urriko, azarokoi eta abenduko autolikidazioari dagokion kuotaren diru-sarrera.

Bigarren artikulua. Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga.

Bat atala. Araubide juridikoa eta aplikatzeko araudia.

Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga Foru Komunitateak galdutako du Hitzarmen Ekonomikoaren 36 bis artikuluari jarraikiz, eta artikulua honetan eta bera garatzen duten xedapenetan xedatzen dutenarekin bat.

Bi atala. Zergaren izaera.

Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga bere eremu objektiboan sartzen diren produktuen kontsumoan eragiten duen zeharkako zerga bat da, eta fase bakarrean kargatzen du produktu horien kontsumoa, atmosfera berotzeko duten ahalmenaren arabera.

Hiru atala. Eremu objektiboa.

Zerga honi dagokionez, «berotegi-efektuko gas fluordun» izaera izanen dute hauek: berotegi-efektuko gas fluordun batzuei buruz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluak 2006ko maiatzaren 17an eman 842/2006 (EE) Erregelamenduaren I. eranskinean jasotzen diren hidrofluorokarburuak (HFC), perfluorokarburuak (PFC) eta sufre hexafluoruroa (SF₆), eta substantzia horiek dituzten prestakinak, baita birsortuak eta birziklatuak ere, salbu eta ozono-geruza ezabatzen duten substantziei buruz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluak 2009ko irailaren 16an eman 1005/2009 (EE) Erregelamenduaren arabera araututako substantziak.

Lau atala. Zergaren ordainarazpena.

Hitzarmen Ekonomikoaren 36. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, zergaren ordainarazpena Foru Komunitatearena izanen da Estatuko araudiak aipatzen dituen azken kontsumitzaileek Nafarroan kokaturiko instalazio, ekipo edo aparatuetan erabiltzen dituztelarik zergaren xede diren produktuak.

Berotegi-efektuko gas fluordunak autokontsumorako direlarik, ordainarazpena Foru Komunitatearena izanen da, autokontsumo hori lurralde horretan gertatzen bada.

Aitzineko paragrafoetan jaso ez diren gainerakoetan, ordainarazpena Foru Komunitatearena izanen da lurralde horretan baldin bada zergapeko egintza gertatzen den zergadunaren establezimendua.

Bortz atala. Kontzeptuak eta definizioak.

1. «Azken kontsumitzailea»: Berotegi-efektuko gas fluordunak erosten dituen pertsona edo entitatea, zerga jasanarazia dagoela hura berriz ere saltzeko, produktuetan sartzeko, azken erabilera egiteko bere instalazio, ekipo edo aparatuetan, ekipoak edo aparatuak fabrikatzeko, edo ekipo edo aparatuen karga, birkarga, konponketa edo mantentze lanak egiteko.

Berotegi-efektuko gas fluordunak erosten dituen pertsona edo entitatea betiere hartuko da azken kontsumitzailezat, horiek erabiltzen dituztelarik ekipoak edo aparatuak fabrikatzen edo ekipo edo aparatuen kargan, birkargan, konponketan edo mantentze lanetan, eta soil-soilik ziurtagiria duelarik gas fluordunen 3 kilogramo baino gutxiagoko karga hozgarria duten hozte sistema duten ekipoak manipulatzeko edo ibilgailuen banean dauden pertsonen aisetasun termikorako hozgarri fluordunak erabiltzen dituzten hozte sistemak manipulatzeko, Gas fluordunen eta haietan oinarritutako ekipoen merkaturatzea eta manipula-

zioa eta haiak erabiltzen dituzten profesionalen zertifikazioa arautzen dituen ekainaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuari jarraikiz.

Honi dagokionez, «ibilgailuzat» hartzen da pertsonak edo salgaiak garraiatzeko edozein bitarteko, kanpo direla trenak, itsasontziak eta aireontziak, eta barne, berriz, nekazaritzarako edo industriarako edozein makineria mugigarri.

2. «Ekipo eta tresna berriak»: lehen aldiz erabiltzen diren edo abian jartzen diren ekipoak, tresnak eta instalazioak dira.

3. «Atmosfera berotzeko ahalmena»: berotegi-efektuko gas fluordun batek karbono dioxidoaren ahalmenarekin alderatuta duen berokuntza klimatikorako ahalmena da, 100 urte inguruko epea hartuta kontuan. Gas horiek atmosfera berotzeko hamaika atalaren 1. zenbakian adierazten den ahalmena dute.

4. «Prestakin batek atmosfera berotzeko duen ahalmena»: hamaika atalaren 1. zenbakian aipatzen den substantzia bakoitzaren pisuaren arabera zatikien batura atmosfera berotzeko duten ahalmenarekin eta +/- % 1eko pisu-tolerantziarekin biderkatetik eratorritako batezbesteko haztatua da.

5. «Prestakina»: bi substantziaren edo gehiagoren arteko nahasketa, horietako bat gutxienez berotegi-efektuko gas fluorduna denean, prestakin horrek atmosfera berotzeko duen ahalmena 150 baino txikiagoa denean salbu.

6. «Birziklatzea»: berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga aplikatzekoa den lurraldean garbiketarako oinarritzko prozedura bidez egiten den tratamendua.

7. «Birsorkuntza»: berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga aplikatzen den lurraldean prozedura edo tratamendu kimikoen bitartez egiten den berreskuratzeko tratamendua eta hobekuntza; betiere, gas fluordunaren ezaugarri teknikoak buruzko arauaren arabera mailak ezartzeko helburuarekin.

8. «Birsaltzailea»: Bulego kudeatzaileak erregelamenduaren arabera baimendurik egoteagatik zergaren xede diren gasak salbuesirik honako xede hauetako edozeinetarako erosten dituzten pertsona edo entitateak dira:

a) azken kontsumitzaile baten, edo bertze pertsona edo entitate baten eskutan uzteko, zerga aplikatzekoa den lurralde esparruan gero merkaturatu beharrez edo zerga aplikatzekoa den lurralde esparrutik kanpo erabili edo igorri beharrez.

b) bere bezeroen ekipo edo aparatuen kargan, birkargan, konponketan edo mantentze lanetan erabiltzeko.

9. Artikulu honetan agertzen diren kontzeptuei eta terminoei dagokienez, eta bertan hala definitzen den kasuetan salbu, berotegi-efektuko gas fluordunei buruz Europar Batasuneko eta Estatuak araudian xedatzen dena bete beharko da.

Sei atala. Zergapeko egintza.

1. Zerga aplikatuko zaie:

a) Europar Batasunaren barnean ekoitzi, inportatu edo erosi ondoren lehenengoz saldu edo entregatzen diren berotegi-efektuko gas fluordunei. Era berean, lehen salmentaren edo entregaren parekoa izanzen da enpresariak berotegi-efektuko gas fluordunak berriz saltzea, horiek bereganatzean zazpi atalaren 1. zenbakiko a) letran araututako salbuespena aplikatu zaienean.

b) Berotegi-efektuko gas fluordunen autokontsumoari. Autokontsumotzat hartuko da aurreko hizkian aipatzen diren enpresariak, Europar Batasuneko erosleek, inportatzaileek edo ekoizleek berotegi-efektuko gas fluordunak erabiltzea edo kontsumitzea.

c) Zergaren xede den berotegi-efektuko gas fluordunen inportazio edo erosketari, hura Batasuneko herrien artean egiten delarik, eta gas horiek dauden produktuak erabilerak berekin dakarrelarik gas horiek berak atmosferara igortzea, hala nola aerosolak, eta poliuretanozko eta poliestireno estruituko sistema eta aparak, bertzeak bertze.

2. Berotegi-efektuko gas fluordunen salmenta edo entregatik ez da zergarik ordaindu behar, baldin eta Europar Batasuneko ekoizleak, inportatzaileak edo erosleak zerga aplikatzen den lurralde-esparrutik kanpo bidali behar baditu.

Hauek ere zergatik salbuetsiak daude:

a) Salmentak edo entregak, autokontsumoa edo, aitzineko c) zenbakiaren kasuan, berotegi-efektuko gas fluordunen inportazioa edo erosketak Europar Batasuneko herrien artean, atmosfera bertzeko ahalmena 150ekoa edo handiagoa delarik.

b) Zergaren xede diren gasen galerak, neurgailu desberdinen zehazkabetasunen ondorioz, betiere egiaztatzen ahal baldin bada galera horiek daudela neurgailuak behar duen ziurtagirian pisuaren tolerantzia dela-eta zehazten dituen mugen barnean, izanik hura hori behar bezala homologatua, Metrologia Legalaren Nazioarteko Erakundeak ezarritako ziurtapen programarekin bat etorritik.

3. Aurkakoa frogatu ezean, berotegi-efektuko gas fluordunak zergarekin lotutako salmenta edo entregaren xede izan direla ulertuko da, zergadunek produktu fabrikatuen, inportatuen edo erosien norakoa justifikatzen ez dutenean.

Zazpi atala. Salbuespenak:

1. Ondoko hauek salbuetsirik geldituko dira, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan:

a) Berotegi-efektuko gas fluordunak zerga aplikatzeko den lurralde esparruan berriz ere saltzeko dituzten enpresariei lehen aldiz saltzea edo entregatzea, betiere horiek birsaltzaile izaera badute bertz atalaren 8. zenbakian ezarritakoari jarraikiz.

b) Enpresariei berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo entregatzea –produktu, ekipo edo aparatuetako edukiak barne–, horiek zerga aplikatzen den lurralde esparrutik kanpo bidaltzen edo erabiltzen direnean.

c) Berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo entregatzea gas horien konposizioa guttiz aldatzeko transformazio kimikoko prozesuetan lehengai gisa edo bertze gas fluordunen nahasketarako lehengai gisa erabiltzen dituzten enpresariei.

d) Berotegi-efektuko gas fluordunak enpresariei lehen aldiz saltzea edo entregatzea, horiek lehen aldiz ekipo edo aparatu berrietan txertatzen direnean.

e) Enpresariei berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo entregatzea, gas horiek inhalaziorako aerosol dosifikatzaile gisa aurkezten diren sendagaiak fabrikatzeko erabiltzen direnean.

f) Berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo entregatzea, baldin bada ekipo, aparatu edo instalazioak kargatzeko, horietatik lehenik bertze gas batzuk atera direlarik, eta horiek utzi direlarik Administrazio Publiko eskudunak aitortutako hondakinen kudeatzaileen eskutan, desegiteko, birziklatzeko edo birsortzeko. Gas kopurua salbuetsia ez da izaten ahal ekipotik atera eta hondakinen kudeatzaileen eskutan utzi dena baino handiagoa.

g) Berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo entregatzea itsasoz nahiz airez nazioarteko nabigazioa egiten duten itsasontzi edo aireontziei, jostetako nabigazio pribatua kanpo.

Aitzineko paragrafoari dagokionez, itsasoz nahiz airez nazioarteko nabigazioa egitea da zerga aplikatzeko den lurralde esparrutik abiatu eta handik kanpora edo alderantziz egiten dena. Orobat, itsasoz nahiz airez nazioarteko nabigazioa

egiten dela ulertuko da itsaso handian nabigatzen duten ontziek egiten dutelarik, industrian, merkataritzan edo arrantzan ari badira, baina ez garraioan, betiere nabigazioak, geldialdirik gabe, berrogeita zortzi ordu baino gehiago irauten badu.

2. % 95 salbuetsirik egonen dira, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan, enpresariei egindako lehen salmentak edo entregak, atmosfera berotzeko 3.500 edo gutxiagoko ahalmena duten berotegi-efektuko gas fluordunak suteak itzaltzeko sistema finkoetara bideratzen direnean, edo suteak itzaltzeko sistema finkoetan inportatzen edo erosten direnean.

Orobat, % 95 salbuetsirik egonen da berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo entregatzea zentro ofizialki aitortuei, helburua irakaskuntza baizik ez delarik, edo ikerketa lanak egiten dituzten zentroei, baita enpresa aholkularien edo ingeniarietako proba laborategiei edo fabrikatzaileen ikerkuntzarakoei ere, betiere haie-tatik ateratzen ez badira edo hondakinen kudeatzaile baten bidez suntsitu direla justifikatzen ez bada.

Zentro horietako zuzendariek salbuespenaren aplikazioa eskatuko diote bulego kudeatzaileari. Bertze erabiletarako edo zentro horietatik ateratzeko diren gas fluordunei dagokienez, zuzendariak bulego kudeatzaileari eman beharko dio horien berri.

Halaber egonen da % 95 salbuetsirik berotegi-efektuko gas fluordunak lehen aldiz saltzea edo entregatzea, Indar Armaturen suteak itzaltzeko ekipotarako direlarik.

Defentsa Ministerioak salbuespenaren aplikazioa eskatuko dio bulego kudeatzaileari. Eskaera horretan zehaztuko da berotegi-efektuko zenbat gas fluordun eta zer motatakoa erosi nahi den salbuetsirik, aurreikusitako beharren arabera. Eskaeran adierazitako inguruabarrak aldatuz gero, Defentsa Ministerioak horren berri eman beharko dio bulego kudeatzaileari.

3. Noiz eta horrela, mutatis mutandis betetzen direlarik bai artikulu honetan bai atal honen aitzineko zenbakietan arautzen diren salbuespenetarako erregelamenduzko arauetan biltzen diren baldintzak, salbuetsirik egonen dira berotegi-efektuko gas fluordunen autokontsumoak eta berotegi-efektuko gas fluordunen inportazioak eta erosketak Europar Batasuneko herrien artean, sei atalaren 1. zenbakiaren c) letrak aipatzen dituenetarik direlarik.

4. Aitzineko 1, 2 eta 3. zenbakietan xedatua deusetan ukatu gabe, horrela erositako berotegi-

efektuko gas fluordunak salbuespenerako eskubidea eragiten duten bertze erabilera batzuetara bideratzen badira, lehen salmenta edo entrega gas horiek zerga aplikatzekoa den lurralde esparruan kontsumitzen diren edo erabilera horietarako erabiltzen diren momentuan berean egin dela ulertuko da.

Zortzi atala. Sorrazpena.

1. Zergaren xede diren produktuak erosleen edo, hala badagokio, autokontsumoaren eskura jartzen diren momentuan sorraziko da zerga.

2. Sei atalaren 3. zenbakian aurreikusitako kasuetan, produktua fabrikatzean, inportatzean edo erostean sortuko da zerga, irregulartasuna egin den data frogatu daitekeen kasuetan salbu, horrelakoetan hura izanen baita zerga sorrazten den momentua.

3. Zazpi atalaren 4. zenbakian aurreikusitako egoeretan, lehen salmenta edo entrega egiten denean sorraziko da zerga.

Bederatzi atala. Zergadunak.

1. Zerga ordaindu beharko dute fabrikatzaileek, inportatzaileek, Europako Batasunaren barneko erosleek, hondakinen kudeatzaileek, baita salmenta edo entregak, inportazioak edo Batasunaren barneko erosketak edo zergari loturik dauden autokontsumorako jarduerak gauzatzen dituzten birsaltzaileek ere.

2. Zazpi atalaren 4. zenbakian aurreikusitako egoeretan, zergaduntzat hartuko dira berotegi-efektuko gas fluordunak zerga aplikatzen den lurralde esparruko salbuespenerako eskubidea aplikatzen ez zaien bertze erabilera batzuetara bideratzen dituzten enpresariak.

3. Sei atalaren 3. zenbakiak aipatzen dituen kasuetan ulertzen da, kontrakorik frogatu ezean, berotegi-efektuko gas fluordunak zergarekin lotutako salmenta edo entregaren xede izan direla zergadunek produktu fabrikatuen, inportatuen edo erosien norakoa justifikatzen ez dutenean; halakotetan, zergadunak izanen dira fabrikatzaile, inportatzaile, Batasunaren barneko erosle edo birsaltzaileak, salmenta edo entrega horiek egiten badituzte.

Hamar atala. Zerga-oinarria.

Zergaren xede diren produktuen pisuaren arabera izanen da zerga-oinarria; pisu hori kilogramotan adieraziko da.

Hamaika atala. Zerga-tasa.

1. 1. tarifa:

Zerga atmosfera berotzeko ahalmenaren araberakoa izanen da.

Zerga-tasa kalkulatzeko, 0,020 koefizientea aplikatuko zaio gas fluordun bakoitzak atmosfera berotzeko duen ahalmenari; dena den, gehienez ere 100 euro ordainduko dira kilogramo bakoitzeko, honako epigrafe hauei jarraiki:

Epigrafea	Berotegi-efektuko gas fluorduna	Atmosfera berotzeko ahalmena (PCA)	Mota - €/kg
1.1	Sufre hexafluoruroa	22.200	100
1.2	HFC - 23	12.000	100
1.3	HFC - 32	550	11
1.4	HFC - 41	97	-
1.5	HFC - 43-10mee	1.500	30
1.6	HFC - 125	3.400	68
1.7	HFC - 134	1.100	22
1.8	HFC - 134a.	1.300	26
1.9	HFC - 152a.	120	-
1.10	HFC - 143	330	6,6
1.11	HFC - 143a.	4.300	86
1.12	HFC - 227ea.	3.500	70
1.13	HFC - 236cb.	1.300	26
1.14	HFC - 236ea.	1.200	24
1.15	HFC - 236fa.	9.400	100
1.16	HFC - 245ca.	640	12,8
1.17	HFC - 245fa.	950	19
1.18	HFC - 365mfc.	890	17,8
1.19	Perfluorometanoa	5.700	100
1.20	Perfluoroetanoa	11.900	100
1.21	Perfluoropropanoa	8.600	100
1.22	Perfluorobutanoa	8.600	100
1.23	Perfluoropentanoa	8.900	100
1.24	Perfluorohexanoa	9.000	100
1.25	Perfluoroziklobutanoa	10.000	100

2. 2. tarifa:

2.1 epigrafea. Prestakinak: zerga-tasa kalkulatzeko, 0,020 koefizientea aplikatuko zaio prestakinetik eratorritako atmosfera berotzeko ahalmenari, betiere borts atalaren 3. zenbakian xedatua kontutan hartuta eta kilogramo bakoitzeko gehienez ere 100 euro ordainduko direlarik.

3. 3. tarifa:

3.1 epigrafea. 1. tarifako gas birsortuak eta birziklatuak: zerga-tasa kalkulatzeko, 0,85 koefizientea aplikatuko zaio 1. tarifiari zehaztutako tasari.

3.2 epigrafea. 2. tarifako prestakin birsortuak eta birziklatuak: zerga-tasa kalkulatzeko, 0,85 koefizientea aplikatuko zaio 2. tarifiari zehaztutako tasari.

Hamabi atala. Kuota osoa.

Zerga-oinarriari karga-tasa aplikatzearen emaitza izanen da kuota osoa.

Hamahiru atala. Eragina.

1. Zergadunek sortutako kuoten zenbatekoa jasanarazi beharko diete zergaren xede diren produktuen erosleei. Erosleak kuotak jasatera behartuta egonen dira.

2. Jasanarazitako kuotak fakturan jasanaraziko dira, bertan jasotzen diren gainerako kontzeptuetatik berezita. Zerga ordaindu behar ez duten edo salbuetsita dauden eragiketen kasuan, egoera hori berariaz adieraziko da aipatutako dokumentuan, betiere hobari horren aplikazioa jasotzen duen artikulu honetako manua argi eta garbi adieraziz.

3. Eragindako kuotak ez dira jasanaraziko ikuskapen-akten ondorio diren likidazio-kasuetan eta oinarrien zeharkako balioespeneko kasuetan.

Hamalau atala. Kenkariak eta itzulketak.

1. Likidazio-aldi bakoitzari dagozkion autolikidazioetan, eta erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan, zergadunek herri-administrazio eskudunak aitortutako hondakin-kudeatzaileei eman dizkieten berotegi-efektuko gas fluordunei dagozkien zerga ordainduaren kuotak murrizten ahalko dituzte, horiek hondakinen sektoreko legedian jasotako dokumentazioari eta kontrolei jarraikiz suntsiarazteko, birziklatzeko edo birsortzeko helburuarekin.

Murrizketa hori gauzatzeko, suntsipena gertatu den likidazio-aldiari dagokion kuota murriztuko da. Eratorritako kenkarien zenbatekoa likidazio-aldi berean eragindako kuoten zenbatekoa baino handiagoa denean, diferentzia hurrengo autolikida-

zioetan konpentsatu ahal izanen da; betiere, diferentzia hori islatzen duen autolikidazioa aurkeztu denetik lau urte igaro ez badira.

2. Berotegi-efektuko gas fluordunen azken kontsumitzaileek, zerga ordaindu dutenean, eta zazpi atalean aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko eskubidea dutenean edo herri-administrazio eskudunak aitortutako hondakin-kudeatzaileei berotegi-efektuko gas fluordunak eman izana egiaztatzen dutenean –horiek hondakinen sektoreko legedian jasotako dokumentazioaren eta kontrolen arabera suntsitu, birziklatu edo birsortzeko helburuarekin, eta aurretiaz kenkaririk aplikatu ez bazaie–, hura itzultzeko eskatu ahal izanen diote Tributu Administrazioari, erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan.

Hamaborts atala. Kudeaketa-arau orokorrak.

1. Sortutako kuotak adieraziko dituen autolikidazio bat aurkeztu beharko dute lau hilez behin zergadunek; era berean, zerga-zorra ordaindu beharko dute harekin batera.

2. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak ezarriko ditu aurreko zenbakian aipatzen diren autolikidazioak aurkezteko ereduak, epeak, betebeharrak eta baldintzak, bai eta, hala badagokio, aurretiaz produktoren prezioan jasan duen baina kenkaririk izan ez duen zergaren itzulketa eskatzekoak ere.

3. Sei atalean adierazitako jarduerak gauzaten dituzten zergadunek nahitaez inskribatu beharko dituzte beren instalazioak berotegi-efektuko gas fluordunei buruzko zergaren lurralde erregistroan.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak zerga hori nahitaez ordaindu beharko dutenen erroldaren egitura zehaztuko du, baita horiek lurralde erregistroan inskribatzeko prozedura ere.

4. Merkataritzako xedapenek eta sektoreko berteze arau fiskal batzuek kontabilitatearen aldetik ezarritako baldintzak edozein direla ere, berotegi-efektuko gas fluordunen izakinen kontabilitatea erregelamendu bidez xedatzen den bidetik eramatea ezartzen ahalko da.

5. Hamaika atalaren 3. zenbakian aurreikusitako zerga-tasak aplikatzeko, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak bete beharko dira.

Hamasei atala. Arau-hausteak eta zehapenak.

Zerga honi dagozkion arau-hausteak tributuei buruzko abenduaren 17ko 13/2000 Lege Orokorraren aurreikusitakoari jarraiki kalifikatu eta zigortuko dira.

Hamazazpi atala. Poliuretanoaren sektorerako araubide berezia.

Poliuretanoa ekoiztera bideratutako edo dagoneko fabrikatuta dagoen poliuretano bidez inportatutako edo bereganatutako gas fluordunei aplikatu beharreko zerga-tasa kalkulatzeko, atmosfera berotzeko duen ahalmenaren arabera dagokion zerga-tasa –hamaika atalean jaso dena– 0,10 koefizientearekin biderkatuko da.

Hemezortzi atala. Xedapen iragankor bakarra. 2015eko ekitaldian aplikatzeko zerga-tasak.

2015eko ekitaldirako, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergan aplikatuko diren zerga-tasak kalkulatzeko, 11. artikuluan araututako tasak 0,66 koefizienteekin biderkatuko dira.

Hemeretzi atala. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak aldatzen ahalko ditu zerga-tasak eta haiek zehazteko magnitudeak, zergapean ez dauden kasuak, salbuespenak, kenkariak eta itzultzeak, artikulua honetan ezartzen direnak.

Hirugarren artikulua. Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga.

Bat atala. Araubide juridikoa eta aplikatzeko araudia.

Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga Foru Komunitateak galdutako du Hitzarmen Ekonomikoaren 31 quater artikuluari jarraikiz, eta artikulua honetan eta bera garatzen duten xedapenetan xedatzen dutenarekin bat.

Bi atala. Zergaren izaera.

Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga zuzeneko tributua da, kreditu-erakundeetan eraturiko gordailuak zergapetzen dituena; horretarako modua eta baldintzak artikulua honetan aurreikusten dira.

Hiru atala. Zergaren ordainarazpena.

Hitzarmen Ekonomikoaren 31 quater artikuluan ezarritakoaren arabera:

1. Zergaren ordainarazpena Foru Komunitatearena izanen da baldin eta lurralde horretan badaude hirugarrenen funtsak gordetzen diren egoitza zentrala, sukurtsalak edo bulegoak.

2. Foru Komunitateari egotziko zaizkio bezeroa bertan egotea behar ez duten merkaturatze sistemen bidez mantentzen diren funtsak edo halako lurralde bati egotzen ahal ez zaizkionak, gordailu lurralderatuetan duen partaidetzaren arabera dagokion heinean.

3. Zergaren konturako ordainketak atal honen aitzineko zenbakietako irizpideen arabera eskatuko ditu administrazio batek edo bertzeak.

Lau atala. Zergapeko egintza.

Zergapeko egintza da sei atalean aipaturiko zergadunek hirugarrenen funtsak mantentzea, haien izaera juridikoa edozein dela, berekin bada-karte itzultzeko betebeharra, salbu eta Espainiako lurraldetik kanpoko sukurtsaletan mantentzen diren funtsak.

Bortz atala. Salbuespenak.

Zergatik salbuesirik egonen dira:

– Espainiako Bankua eta diru-arauketako agintariak.

– Europako Inbertsio Bankua.

– Europako Banku Zentrala.

– Kreditu Ofizialeko Institutua.

Sei atala. Zergadunak.

Zergaren zergadunak izanen dira:

a) Kreditu Entitateen Antolamenduari, Gainbegiratzeari eta Kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 1. artikulua definitzen diren kreditu-erakundeak.

b) Atzerriko kreditu-erakundeek Foru Komunitatean dituzten sukurtsalak.

Zazpi atala. Zerga-oinarria.

Zerga-oinarria da urte naturaleko hilabete bakoitzean kreditu-erakundeen balantzearen pasibo erreserbatuko 4. kontu-sailari (“Bezeroen gordailuak”) dagokion amaierako saldoaren batez besteko aritmetikoa egitetik heldu den zenbatekoa.

Horretarako, azken saldoa minoratuko da 4.1.5, 4.2.5, 4.3.2 eta 4.4.5 kontu-sailetan jasotako “balorazio doikuntzen” zenbatekoetan.

Atal honetan aipatzen diren parametroak dagozkie finantza-informazio publiko eta erreserbatuko arauari eta finantza-egoera orrien ereduari buruz Espainiako Bankuak kreditu-erakundeei emandako abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularreko IV. eranskinean eta II. tituluan jasotakoei, edo horren ordezkoko arauan jasotakoei.

Entitate edo sukurtsal bat iraungitzen delarik edo jardueratik gelditzen delarik Espainiako lurraldean abenduaren 31 baino lehen eta zerga honi loturiko gordailuak bertze zergadun bati transmititzen dizkiolarik, orduan, gordailuen transmisioa kontabilitatean eragiketaren urteko urtarrilaren 1eko ondorioak izan ditzan erabaki bada, zerga

honi dagokionez erosleari baizik ez zaizkio kontuan hartuko gordailu hauek.

Zortzi atala. Zerga kuota.

Kuota osoa zerga oinarriari % 0,03ko karga-tasa aplikatuz kalkulatu da.

Kuota diferentziala aterako da kuota osotik egindako konturako ordainketa kenduta, halakorik bada.

Bederatzi atala. Zergaldia eta sortzapena.

Zergaldia urte naturala izanen da.

Halere, Foru Komunitatean jardueraren hasiera gertatzen den zergaldian, jarduera hasi den egunetik urte naturala bukatu bitartekoa izanen da zergaldia. Betiere, zergaldia bukatuko da entitate edo sukurtsala iraungitzen delarik edo jardueratik gelditzen delarik Foru Komunitateko lurraldean

Zergaldiaren azkeneko egunean sortuko da zerga.

Hamar atala. Autolikidazioa.

Zergadunek zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko dute zergaldiaren ondoko urteko uztailean, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak ezartzen dituen tokian eta moduan.

Zergadunek bereizi beharko dituzte bezeroa bertan egotea behar ez duten merkaturatze sistemen bidez mantentzen diren funtsei edo halako lurralde bati egozten ahal ez zaizkionei dagokien zenbatekoa.

Hamaika atala. Konturako ordainketa egin beharra.

Zergadunak behartuta daude aurkeztera konturako ordainketaren autolikidazioa, kasuko zergaldiarena, ekitaldi bakoitzeko uztailean, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak ezartzen dituen tokian eta moduan, aitzineko zergaldiaren zerga-oinarriari zergaldi horretan inda-

rrean den zerga-tasa aplikatetik heldu den kuotaren % 50ekoa.

Zergadunek bereizi beharko dute bezeroa bertan egotea behar ez duten merkaturatze sistemen bidez mantentzen diren funtsei edo halako lurralde bati egozten ahal ez zaizkionei dagokien konturako ordainketaren zenbatekoa.

Hamabi atala. Arau-hausteak eta zehapenak.

Zerga honi dagozkion arau-hausteak tributuei buruzko abenduaren 17ko 13/2000 Lege Orokorrean aurreikusitakoari jarraiki kalifikatu eta zigortuko dira.

Hamahiru atala. Xedapen iragankor bakarra. 2015eko konturako ordainketa

2015eko zergaldiari dagokion konturako ordainketa izanen da 2015ean indarra duen karga-tasa 2014ko zergaldiko zerga-oinarriari aplikatzearen ondoriozkoa, artikuluko honetan aurreikusten denari jarraikiz kalkulatu.

Hamalau atala. Xedapen indargabetzailea.

2015eko urtarrilaren 1etik aitzinako ondorioekin, indarrrik gabe geldituko da Kreditu-entitateetako gordailuen gaineko zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legea.

Azken xedapenenta lehena. Erregelamendu bidez garatzea.

Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak emanen dituzte.

Azken xedapenentan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2015eko urtarrilaren 1etik aitzina izanen ditu ondorioak.

Foru Lege proiektua, 5.498.455 euroko kreditu berezia ematekoa, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko.

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen honako foru lege proiektu honen artikuluei aurkezturiko zuzenketak: "Foru Lege proiektua, 5.498.455 euroko kreditu berezia ematekoa, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko". Proiektu hori 2015eko urtarrilaren 30eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Kreditu bereziaren 4.598.455 euroko kreditu bereziaren zenbatekoa aldatzea.

Zioak: Kredituaren edukia egokitzea Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan parte hartzeagatik konpentsazioa kentzeko zuzenketaren edukia.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa. Artikulu bakarreko 2. idatz-zatian kentzea "Enplegu Plana. Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan parte hartzeagatik konpentsazioa" izeneko 190000-19100-4819-494110 zenbakiko 900.000 euroko kontusaila.

Zioak: Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak nafar herritarrentzat zero kostua izatearen alde.

Diru-ordaina ez dago justifikatuta ez 22/2014 Foru Legean ez eta finantzaketari buruzko foru legearen proiektuan ere, kontuan harturik aipaturiko

ko organoa kontsultarako dela, bai eta hark dituen eskumenak ere.

22/2014 Foru Legean bertan ezarritakoa betetzea; izan ere, 16.2 artikuluan honako hau dio: "Sindikatu- eta enpresaburu-erakundeen ordezkari organo instituzionaletan izanen duten presentzia doakoa izatea aurreikusten da; hori dela eta, ez dute inongo kalte-ordainik jasoko bertarantzegatik nahiz gastuak konpentsatzeko".

Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari Nafarroako Gobernuak berak aplikatzen dion irizpidearekiko koherentzia, bertako entitate partaideek ere ez baitute inolako diru-ordainik jasotzen beren parte-hartzearengatik.

3. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko 2. idatz-zatian, kontusail hau kentzeko zuzenketa: "Enplegu Plana. Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan parte hartzeagatik konpentsazioa" izeneko 190000-19100-4819-494110 zenbakiko kontusaila.

Zioak: Kontusail hori da, hain zuzen, eragile horiei diru publikotan ematen zaien ordainsaria, ekonomiaren, murrizketen eta langabeziaren alorrean UPNren Gobernuak garatutako politikak onartu eta haiekiko lankidetzan aritzearen truke; politika horiek dira langabezia, bazterketa eta berdintasunik eza bezain ondorio larriak eragin dituztenak gure erkidegoko gizarte-sektore handietan.

Hain larria den eta hainbeste gabezia sozial dauden unean hiru erakunde horien artean –CEN, UGT, CCOO– 900.000 euro banatzeak erakusten du etika soziala eta solidaritate-sentimendurik txikiena ere guztiz falta direla baliabide publikoen ustezko gabeziengatik txirotasuna nozitzen ari direnekiko; bien bitartean, beste batzuek abusuz darabilte aberastasuna.

4. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA ETA
ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Artikulu bakarreko 2. puntua aldatzeko zuzenketa. "Hitzarmena CEN, UGT eta CCOO erakundeekin" aipamenak kenduko dira honako kontusail hauetatik:

- 170002-15200-4819-242109
- 170002-15200-4819-242107
- 170002-15200-4810-242108
- 170001-15100-4819-241-113
- 170002-15200-4819-242105
- 190000-19100-4819-494109

las referencias a: "Convenios con UGT, CCOO o CEN".

Zioak: Kontusail hori da, hain zuzen, eragile horiei diru publikotan ematen zaien ordainsaria ekonomiaren, murrizketen eta langabeziaren alorrean UPNren Gobernuak garatutako politikak onartu eta haiekiko lankidetzan aritzearen truke; politika horiek dira langabezia, bazterketa eta berdintasunik eza bezain ondorio larriak eragin dituztenak gure erkidegoko gizarte-sektore handi batzuetan.

Hain larria den eta hainbeste gabezia sozial dauden ulean hiru erakunde horien artean –CEN, UGT, CCOO– 900.000 euro banatzeak erakusten du etika soziala eta solidaritate-sentimendurik txikiena ere guztiz falta direla baliabide publikoen uestezko gabeziengatik txirotasuna nozitzen ari direnekiko; bien bitartean, beste batzuek abusuz darabilte aberastasuna.

5. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarreko 2. idatz-zatiko azken lerroka da aldatzeko zuzenketa.

Artikulu bakarreko bigarren idatz-zatiko azken lerrokada beste honekin ordeztea:

"Kasua bada, ekitaldi bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan Nafarroako Gobernuak kontusail bat txertatuko du, Nafarroan egonik indarreko legediari jarraituz eta, zehazki, Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoari jarraituz eratuak diren sindikatuak finantzatzeko.

Kontusail hori erakunde sindikal guztien artean banatuko da, haien ordezkartasunaren proportzio zuzenean.

Zioak: Erakunde sindikalei haien ordezkartasunaren arabera banatzea finantzaketa.

6. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zuzenketa, 2.460.871 euroko kreditu-gehirgarri bat biltzen duen artikulu berri bat txertatzekoa:

- Legearen izenburuaren testu berria:

"Foru Lege proiektua, zeinaren bidez ematen baita 5.498.455 euroko kreditu berezi bat, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizane 2015ean zehar erantzutekoa, bai eta 2.460.871 euroko kreditu-gehiruntza bat ere".

- "Artikulu bakarra. Kreditu berezi bat ematea" izenburua aldatzen da, honako hau izan dadin: "1. artikulua. Kreditu berezi bat ematea".

- Artikulu berri bat gehitzen da, honako testua duena:

«2. artikulua. Kreditu-gehiruntza.

1. 2.460.871 euroko kreditu-gehiruntza ematea onesten da, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren finantza-beharrizane 2015ean zehar erantzuteko.

2. Kreditu-gehiruntza horren zenbatekoa 2015era luzatutako 2012ko aurrekontuko 180011 18210 7309 467300 kontusailari aplikatuko zaio, zeinaren izena baita "Zentro Teknologikoetarako ekarpenak: CENER-CIEMAT Fundazioarentzako funts-ekarpena, maileguak amortizatzea".

3. Kreditu-gehiruntza horren finantzaketa 2015era luzatutako 2012ko aurrekontuaren "luzapeneko funtsa" izeneko 11.0000 11000 5000 923400 kontusailean dagoen kredituaren kargura eginen da».

Zioak: Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren ardatzetako bat osatzen du l+g+b-ri Foru Komunitatean emandako laguntzak, Nafarroako zentro teknologikoetarako neurri berriazkoekin. Neurri horien artean aurreikusten da CENER-CIEMAT Fundazioari 2.500.000 euroko diru-ekarpena egitea.

Aurrekontu-luzapenaren ondoriozko jardunbidea dela-eta, ezin izan dira neurri horretara 2.500.000 euro bideratu, eta 2015era luzatutako

2012ko aurrekontuan 39.129 euroko zenbatekoa agertzen da. Akordio horretan jasotako konpromisoei behar bezala erantzute aldera, beharrezkoa da 2.460.871 euroko kreditu-gehikuntza bat baimentzea. CENER-CIEMAT Fundazioarentzako 2.500.000 euroko ekarpen horren zergatia da fundazio horrek, datozen ekitaldietan, aurre egin beharko diola eratu zenetik egin dituen inbertsioak finantzatze aldera eskatu zituen zenbait mailegu itzultzeari.

Energia berriztagarrien sektoreak egun bizi duen egoera dela-eta, fundazio horrek ezinezkoa du mailegu horiek itzultzeari aurre egin ahal izateko behar adinako baliabiderik lortu. Fundazio hori halako moduz indartzeko non arrakasta-bermearekin ekin ahal diezaion bere planifikazio estrategikoari, beharrezkoa da mailegu-itzulketari aurre egiteko moduko ekarpenak egin dakizkion.

7. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Testu bat gehitzeko zuzenketa. Foru lege proiektuari artikulua berri bat gehitzen zaio, honako testu hau izanen duena: "Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua Sortzeko Legearen 16. artikulua aldatzen da.

16. artikulua Sustapena eta finantzaketa.

1. Foru lege honek araututako parte-hartze instituzionala sustatu eta konpentsatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak urtero kontusail bat jarriko du, ordezkari-tasun handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundeentzat, loturarik gabekoa erakunde horiei, esparru ekonomiko eta sozialeko interes orokorreko erakunde gisa, beren jarduera sustatzeko ematen zaizkien diru-laguntzekin". Nafarroako Gobernuak, urteko ekitaldi bakoitzaren lehen hiruhilekoan, ordezkari-tasun handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundeek diru-kantitate bana eta berdina helaraziko die, haien parte-hartze instituzionalarengatik eta Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluan parte hartzeagatik.

2. Doakotzat jotzen da sindikatu- eta enpresaburu-erakundeek ordezkari- organo instituzionaletan izanen duten presentzia; hori dela eta, ez dute jasoko bertaratzeagatik nahiz gastu-konpentsaziorako inongo kalte-ordainik.

3. Helarazitako diru-kantitatearen zenbatekoa kontsumoko prezioen indizea (KPIa) bezala aldatuko da urtero, muga gisa erkidegoko aurrekontuaren hazkundera izanik".

Zioak: Zuzenketa tekniko bat da, 16. artikuluari testu egokia ematea bilatzen duena, Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua sortzeko Foru Legearen edukari jarraituz.

Foru Lege proiektua, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen honako foru lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak: "Foru Lege proiektua, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez". Proiektu hori 2015eko otsailaren 6ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztua

Artikulu bakarraren 3. idatz-zatia ordeztuko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

"3. Desgaitasuna duten langileen egiazko integrazioa ziurtatzeko, lanpostuen benetako zereginak zehaztuko dira eta lanpostu horien eskatzaileen desgaitasunaren bakarkako balorazioa egingen da, halako moduz non desgaitasuna duen pertsona bakoitzak jakinen duen zer lanpostu eskura ditzakeen.

Aurreko idatz-zatietan ezarritako desgaitasun gradua izan eta, edozein txandatan, Administrazioan sartzeko deialdi bateko lanpostua lortzen duten pertsonak, lanpostu hutsak aukeratzeko orduan, gainerako izangaien aurretik egonen dira.

Era berean, enplegu lagunduaren arloko neurriak ezarriko dira, baldin eta desgaitasuna duen pertsonak halakoak behar baditu lortutako lanpostura egokitzeko.

Duen desgaitasunak ez badio kasuko pertsonari eragozten eskuratu duen lanpostuaren zeregin berekiak betetzea, beharrezkoak diren neurri guztiak ezarriko dira lanpostura iristea

eta/edo bere lana egitea eragozten dioten oztopoak kentzeko".

Zioa: Legea, idatzita zegoen moduan, asmo onen bilduma besterik ez zen, baina funtsezko zehaztapenik gabea. Egiazki lortu nahi duguna bada legeak zehazten duen desgaitasun gradua duten pertsonen integrazioa, Administrazioak ziurtatu beharra dauzka hori posible egingen duten neurriak.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

Edukia:

«xxx xedapen gehigarria. Hauteskunde prozesuak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek aparteko orduak sorrarazten ahalko dituzte, horien lansari araubidea eta eginkizunak zeinahi diren ere, baldin eta 2015ean egingen diren hauteskundeak antolatzen eta garatzen parte hartzen badute, nor bere lanpostuko zeregin berekiak betetzeaz haratago sartzeko duen denbora dela kausa, Nafarroako Gobernuak hartutako erabaki bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan."

Zioak: Heldu den maiatzaren 24ko udal hauteskundeekin batera, Nafarroako Parlamenturako eta kontzejuetarako hauteskundeak ere egingen dira. Azken prozesu horien antolamendua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokio.

Prozesu konplexuak dira, organo desberdinen eta haien baliabide materialen eta giza baliabideen parte-hartzea, lankidetzeta eta koordinazioa eskatzen dutenak, hauteskunde deialdiak era ordenatuan eta behar den moduan egitea ahalbidetzeko.

Helburu horiek modu eraginkor eta efizientean betetze aldera, beharrezkotzat jotzen da aldi baterako batzorde bat ezartzea, Lehendakaritza, Barne eta Justizia Departamentuko titularrak buru

izanen duena, alor horretako koordinaziorako eta erabakiak hartzeko. Batzorde hori osatuko dute, hasiera batean, lan horietan zerikusi zuzena duten unitate organikoetako titularrek, zeregin osagarriak dituzten beste kide batzuen parte hartzea eragotzi gabe.

Halaber, aipatu hauteskunde prozesuekin zerikusia duten lan zehatzak prestatu edo egiteko, aurreikusita dago Hauteskunde Bulegoa izeneko lantalde bat eratzea, aldi baterako izango dena eta aipatu batzordearen menpe egonen dena.

2007ko eta 2011ko hauteskunde prozesuetan, urte horietako aurrekontuei buruzko foru legeetan aurreikuspen bat sartu zen, ohiko lanaldiaz kanpo hauteskunde prozesuei dagozkien lanetan aritzen

diren langileei konpentsazio ekonomiko bat ematea ahalbidetzeko.

Aurten ez denez Aurrekontuei buruzko Foru Legea onetsi, bidezkoa da neurri hau sartzea foru lege proiektu honetan, aurreko hauteskunde prozesuetan izan zuen testu berarekin.

Kontuan hartuta beste hauteskunde prozesu batzuen aurrekariak, uste da neurri horrek hogeiki lagunengan izanen duela eragina, gehienez ere, 25.000 euroko kostuarekin. Gastu hori indarrean dagoen gastuen aurrekontuko "Hauteskunde prozesuak" izeneko 010001 01000 2275 921100 kontusailaren kargura finantzatu da.

Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak honako foru lege proiektuari buruz onetsitako irizpena: "Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen". Proiektu hori 2015eko otsailaren 6ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IRIPENA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2015eko martxoaren 5ean egindako bileran onetsia.

Foru Lege proiektua, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatzen baita eta langile horien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen baitira

ZIOEN AZALPENA

Foru lege honen bidez, 2015. urtera luzatzen da Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia, langile horien montepioetako klase pasiboen pentsioak ere eguneratzen dira, eta, azkenik, ezartzen da berehala ordainduko dela 2012ko abenduan ordaindu gabeko aparteko ordainsaria- ren % 24,04, kasuko interesak barne.

1. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

2015. urtera luzatzen dira Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, hots, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1., 5., 6. eta 8. artikuluetan aurreikusita-koak.

2. artikulua. Nafarroako administrazio publiko- en montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak eguneratzea.

1. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondo- rioekin, Nafarroako administrazio publiko- en montepioetako funtzionarioen klase pasibo- en pentsioek, indarreko araudiaren arabera eguneratzeko esku- bidea dutenek, pentsio publikoek urte horretan duten igoera bera izanen dute.

2. Aurreko atalean xedatutakoa galarazi gabe, alargun- eta umezurtz-pentsio minimoek lanbide arteko gutxieneko soldatari jarraituko diote, indarra duen araudian ezarritakoaren arabera.

3. Pentsio publiko- en arloko indarreko araudia aplikatzeko, eguneraketa ez da aplikatuko baldin eta aitortutako edo etorkizunean aitortuko diren pentsioek, berek bakarrik nahiz onuradun berak

jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuekin batera pentsio publiko- etarako urtean ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen badute.

Artikulu berria.

2012ko abenduan ordaindu gabeko aparteko ordainsariaren % 24,04, kasuko legezko interesak barne, berehala ordainduko da. Gainontzeko % 75,96 ordainduko da Estatuak aurreikusitako inguru- ar bar ekonomikoek horretarako modua ematen baldin badute.

Azken xedapenetan lehena. (KENDUA)

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra har- tzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale- an argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, 5.498.455 euroko kreditu berezia ematekoa, Ekono- mia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar eran- tzuteko.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artiku- luan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Par- lamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ekono- mia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak foru lege proiektu honi buruz onetsitako irizpena: "Foru Lege proiektua, 5.498.455 euroko kreditu berezia ematekoa, Ekonomia Suspertu eta Enple- gua Sortzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko". Proiektu hori 2015eko urtarrilaren 30eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko martxoaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IRIZPENA

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Ba- tzordeak 2015eko martxoaren 6an egindako bile- ran onetsia.

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez ematen baita 5.498.455 euroko kreditu berezi bat, Ekonomia Susper- tu eta Enplegua Sortzeko Akordioa- ren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzutekoa, bai eta 2.460.871 euroko kreditu- gehikuntza bat ere

ZIOEN AZALPENA

Solaskide sozialekin mintzatzeko bidea izatea Europako gizarte ereduaren zutabeetako bat da. Eta eredu horrek erro sendoak ditu Europar Bata- suna eratu zuen Tratatuan. Era berean, Europako Erregioen Batzordeak behin baino gehiagotan nabarmendu du Europako Enplegurako Estrategian ezarritako helburuak lortzeko, kontuan hartu behar- ko dela tokian tokiko ikuspegia, eta erregio mailako

enteei euren lehentasunak ezartzeko behar adinako malgutasuna eskaini beharko zaiela.

Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoak eta Langileen Estatutuak "ordezkaritasun handieneko" izaeraren aitortpena egin dute, bai eta izaera hori sindikatu- eta enpresaburu-erakunde jakin batzuei aplikatzea ere, haien ezarpenaren norainokoaren arabera, halatan kualifikatuz administrazio publikoekin duten harremanerako. "Ordezkaritasun handiena" irizpide gisa erabiltzea Konstituzio Auzitegiaren doktrinak berretsi eta zedarritu du.

Itun sozialak, azken bi hamarkadetan, emaitza garrantzitsuak eman ditu Nafarroaren garapen ekonomiko eta sozialerako. Une honetan beharrezkoa da prozedurak berriro egokitzea, enpresen, langileen eta, oro har, gizartearen premia eta eskaera berriei moldatzeko. Horregatik, 2013ko irailean, Nafarroako Gobernuak Elkarrizketa eta Itun Sozialerako Mahai Iraunkorra eratu zuen. Mahai hori kontsultarako organo bat da, zeinaren helburu nagusiak baitira ekonomiaren nahiz lanaren arloko eta arlo sozialeko analisisa, gogoeta, negoziazioa eta ituna.

2014ko urriaren 3an, Nafarroako Gobernuak eta ordezkariatasun handiena duten eragile sozialek Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioa izenpetu zuten, ekonomia sustatzeko, industria ehuna sendotzeko, enplegu politikei norabide berria emateko eta Elkarrizketa Soziala finkatzeko.

Nafarroako Parlamentuak, bere aldetik, azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legea onetsi zuen, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duena, ordezkariatasun handiena duten eragile ekonomiko, sozialen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren bilgune, parte-hartze eta negoziazio instituzionalerako organo goren gisa. Haren eskumenenetan nabarmenenak hauexek dira: langile eta enpresaburu guztiei dagozkien interes orokor, komun, sektorial eta sektoreartekoak sustatu eta defendatzea. Bereziki, arlo ekonomikoko, arlo sozialeko, lanaren arloko eta gizartearen bizi-kalitatean eragina duten interes orokorreko arlo guztietako gaien negoziazioa eta ituntzea. Azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legearen 16. artikuluan xedatutakoari erantzuteko, Kontseilua eratzeko bileran erabaki zen, besteak beste, aurrekontuaz janztea Ekonomia Suspertzeko eta Enplegua Sortzeko Akordioa eta Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua; horretarako, nahitaezkoa da aurrekontuan aldaketa egin eta onestea, hemen zehazten dena.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 4. artikulua ezartzen duenez, foru lege bidez arautuko dira Nafarroako Aurrekontu orokorrak, eta haien aldaketak ere bai, kreditu bereziak edo kreditu-gehikuntzak emateari buruzkoak badira.

Esandako guztiagatik, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikuluan ezarritakoarekin bat, beharrezkoa da kreditu berezi bat ematea onestea, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko.

1. artikulua. Kreditu berezi bat ematea.

1. 5.498.455 euroko kreditu berezia ematea onesten da, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren nahiz Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko.

2. Kreditu horren zenbatekoa honako kontu-sail hauetara aplikatuko zaie:

– 170002-15200-4819-242109, "Enplegu Plana. Hitzarmena CEN, UGT eta CCOO erakundeekin, enplegu aukeratarako ibilbideen programetarako" izenekoa; 2.592.805 euroko zenbatekoa.

– 170002-15200-4819-242107, "Enplegu Plana. Hitzarmena CEN, UGT eta CCOO erakundeekin, kualifikazio ibilbideen programetarako" izenekoa; 1.500.000 euroko zenbatekoa.

– 170002-15200-4819-242108, "Enplegu Plana. Hitzarmena CEN erakundearekin prestakuntza dualeko programetarako" izenekoa; 73.650 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-4819-241113, "Enplegu Plana. Hitzarmena UGT eta CCOO erakundeekin enplegu programa integralak egiteko" izenekoa; 300.000 euroko zenbatekoa.

– 1700002-15200-4819-242105, "Enplegu Plana. Hitzarmena CEN erakundearekin zuzendaritzako kideen prestakuntza programetarako eta jarduketak egiteko familia enpresetan" izenekoa; 32.000 euroko zenbatekoa.

– 190000-19100-4819494109, "Enplegu Plana. Hitzarmena UGT eta CCOO erakundeekin, erantzukizun soziala garatzeko programetarako" izenekoa; 100.000 euroko zenbatekoa.

– 190000-19100-4819-494110, "Enplegu Plana. Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan parte har-

tzeagatiko konpentsazioa" izenekoa; 900.000 euroko zenbatekoa.

3. Aipatutako kreditu berezia 2015erako luzatutako 2012ko aurrekontuko kontu-sail hauetan erabilgarri dagoen kredituarekin finantzatuko da:

– 170000-15000-2276-241100, "Enplegu Plana. Giza talde jakin batzuetan enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programak" izenekoa; 165.000 euroko zenbatekoa.

– 170000-15000-2276-241300, "Informazio, komunikazio eta bestelakoetarako laguntza teknikoa" izenekoa; 43.604 euroko zenbatekoa.

– 170000-15000-4819-241115, "Enplegu Plana. Giza talde jakin batzuetan enplegua sustatzeko eta prestakuntzarako programak" izenekoa; 677.224 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-2269-241300, "Enplegu Plana. Europar Batasuneko funtsekin kofinantzaturiko programetan parte hartzeagatiko gastuak" izenekoa; 24.990 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-4819-241103, "Enplegu Plana. Hitzarmena UGT eta CCOO erakundeekin etorkinen prestakuntza eta laneratze ekintzetarako" izenekoa; 191.928 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-4819-241109, "Enplegu Plana. Hitzarmena UAGN, UGT eta CCOO erakundeekin nekazaritza arloko enplegu programetarako" izenekoa; 246.544 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-4819-241110, "Enplegu Plana. Hitzarmena CEN, UGT eta CCOO erakundeekin egonkortasun programak egiteko, deklaratu gabeko enplegua arautzekoak, eta autonomo eta ekintzaileen gaiak" izenekoa; 276.682 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-4819-241112, "Enplegu Plana. Hitzarmena UGT eta CCOO erakundeekin etorkinen prestakuntza eta laneratze ekintzetarako" izenekoa; 48.803 euroko zenbatekoa.

– 170001-15100-4819-241302, "Enplegu Plana. Hitzarmena CEN erakundearekin berdintasun, bateratze eta emakumeen enplegu programak egiteko" izenekoa; 138.795 euroko zenbatekoa.

– 170002-15200-2269-242102, "Enplegu Plana. Energia Berriztagarrien Prestakuntzarako Erreferentzia Nazionaleko Ikastetxearen funtzionamendu gastuak" izenekoa; 160.000 euroko zenbatekoa.

– 1700002-15200-2276-242100, "Laneko esperientziaz lortutako gaitasunak egiaztatzeko

prozedurak garatzea" izenekoa; 200.000 euroko zenbatekoa.

– 1700002-15200-4819-242100, "Enplegu Plana. Hitzarmena INAFREekin enplegurako prestakuntza ekinbide eta ekintzetarako" izenekoa; 63.960 euroko zenbatekoa.

– 170002-15200-4819-242104, "Enplegu Plana. Enplegurako lanbide prestakuntza, batez ere lana dutenentzat, eta enplegua sustatzen duten beste batzuk" izenekoa; 1.062.580 euroko zenbatekoa.

– 170002-15200-4709-242102, "Enplegu Plana. Langileen enplegurako prestakuntza ekintzak" izenekoa; 1.714.395 euroko zenbatekoa.

– 170000-15300-2276-241300, "Enplegu Plana. Laguntza teknikoa" izenekoa; 130.000 euroko zenbatekoa.

– 170000-15300-4819-241300, "Enplegu Plana. Hitzarmena INAFREekin INAFREren Enplegu Behatokitako" izenekoa; 275.000 euroko zenbatekoa. 275.000 euro.

– 170003-15400-4819-241100, "Enplegu Plana. Hitzarmena UGT eta CCOO erakundeekin laneratze orientazio ekintzak egiteko" izenekoa; 78.950 euroko zenbatekoa.

2. artikulua. Kreditu-gehikuntza.

1. 2.460.871 euroko kreditu-gehikuntza ematea onesten da, Ekonomia Suspertu eta Enplegua Sortzeko Akordioaren finantza-beharrizanei 2015ean zehar erantzuteko.

2. Kreditu-gehikuntza horren zenbatekoa 2015era luzatutako 2012ko aurrekontuko 18001 18210 7309 467300 kontusailari aplikatuko zaio, zeinaren izena baita "Zentro Teknologikoetarako ekarpenak: CENER-CIEMAT Fundazioarentzako funts-ekarpena, maileguak amortizatzea".

3. Kreditu-gehikuntza horren finantzaketa 2015era luzatutako 2012ko aurrekontuaren "luzapeneko funtsa" izeneko 110000 11000 5000 923400 kontusailean dagoen kredituaren kargura egingen da.

3. artikulua. Nafarroako Elkarrizketa Sozialera Kontseilua eratzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legearen 16. artikulua aldatzen da.

16. artikulua. Sustapena eta finantzaketa.

1. Foru lege honek araututako parte-hartze instituzionala sustatu eta konpentsatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak urtero kontusail bat jarriko du, ordezkari-tasun handieneko sindikatu- eta enpresaburu-

erakundeentzat, loturarik gabekoa erakunde horiei, esparru ekonomiko eta sozialeko interes orokorreko erakunde gisa, beren jarduera sustatzeko ematen zaizkien diru-laguntzekin". Nafarroako Gobernuak, urteko ekitaldi bakoitzaren lehen hiruhilekoan, ordezkartasun handieneko sindikatu-eta enpresaburu-erakundeei diru-kantitate bana eta berdina helaraziko die, haien parte-hartze instituzionalarengatik eta Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluan parte hartzeagatik.

2. Doakotzat jotzen da sindikatu- eta enpresaburu-erakundeen ordezkariak organo instituziona-

letan izanen duten presentzia; hori dela eta, ez dute jasoko bertaratzeagatiko nahiz gastu-konpentsaziorako inongo kalte-ordainik.

3. Helarazitako diru-kantitatearen zenbatekoa kontsumoko prezioen indizea (KPIa) bezala aldatuko da urtero, muga gisa erkidegoko aurrekontuaren hazkundera izanik.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN ALDAKETA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea 2015eko martxoaren 20ko eguerdiko hamabietan bukatuko dela ondoko foru lege proposamen honi zuzenketak aurkezteko epea: "Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko

Zergari buruzko Foru Legearen testuategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia."

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bertan behera utz dezan Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen 2012ko maiatzaren 7ko erabakiaren luzapena, erabaki horren IV. eranskinaren bosgarren idatz-zatiari dagokionez.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bertan behera utz dezan Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen 2012ko maiatzaren 7ko erabakiaren luzapena, erabaki horren IV. eranskinaren bosgarren idatz-zatiari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2015eko otsailaren 26ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioak

Estatuko Gobernuak, une honetan izapidetzen ari den Nafarroaren Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketarako hitzartutakoarekin bat, bere jarrera

aldatu du, eta Auzitegi Gorenean Nafarroari 1.513 milioi euro erreklamatzetik igaro da erreklamazio horretan amore ematera. Jarrera aldaketa hori agerian gelditu da Nafarroaren Hitzarmen Ekonomikoaren hamaikagarren xedapen gehigarri berria onartzean; horren arabera, Nafarroako Ogasunak eta Estatuko Ogasunak egintzat hartuko dituzte subjektu pasibo batek kreditatutako BEZaren ordainketak, zein ere den ordainketa hori jasotzen duen ogasuna, eta ezin izanen diote elkarri erreklamaziorik egin, ez eta subjektu pasiboari ere. Gobernu zentralaren jarrera aldaketa horretan eragin erabakigarria izan du, zalantzarik gabe, Nafarroako Parlamentuaren irmotasunak; izan ere, zenbait erabaki hartu ditu eta adierazpen instituzional argiak onetsi ditu batzuetan gehiengoaren babesarekin eta noizbait aho batez, Gobernu zentralari eskatuz, justiziazkoa delako Auzitegi Gorenean jarritako errekurtsioa erretira dezan, Nafarroarentzat inolako kosturik izan gabe. Parlamentuaren irmotasunaren aurrean, Nafarroako Gobernua adre politikorik gabe agertu da, prest agertzeraino Nafarroak erreklamatzeko zitzaioren parte bat ordain zezan. Paradoxikoki, halere, Estatuak bere asmoan amore eman izanak lasaitu politiko nabarmena ekarri dio egungo Nafarroako Gobernuari sostengua ematen dion alderdiari.

Halere, Estatuak Auzitegi Gorenean jarritako erreklamazioan amore eman izanak ez du guztiz konpontzen Volkswagen enpresaren BEZa dela eta sortutako arazoa; izan ere, Estatuak Auzitegi Gorenean jarritako erreklamazio hori 2007tik 2012ko maiatzera bitartekoa da. Hitzarmenaren Batzorde Koordinatzailearen 2012ko maiatzaren 7ko erabakiak konponbide partzial eta behin-behineko bat ematen dio gatazkari, eta 2019ra arte

luzatu da berrikitan. 2012ko maiatzaren 7ko akordio horrek berekin dakar, justifikaziorik gabeko beste amore-emate batzuen artean, Nafarroak Estatuari 25 milioi euro ordaintzea, UPNren Gobernuak Nafarroaren eskubideen defentsan erakutsitako irmotasun politikorik ezaren ondorioz. Hitzarmenaren Batzorde Koordinatzailearen 2012ko maiatzaren 7ko erabaki hau da UPyDk Auzitegi Nazionalena jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsoren xedea. Auzitegi Nazionalak errekurtsua ezetsi zuen 2015eko urtarrilaren 22ko epaiaren bidez, zeinean argudio bakar bat onartu baitzuen: alderdi demandatzailearen –UPyD– legitimazio eza. Alderdi horrek, halere, kasazio errekurtsua aurkeztuko duela iragarri du.

Hitzarmenaren Batzorde Koordinatzailearen 2012ko maiatzaren 7ko erabakia indargabetutzat jo behar da gaur egun; izan ere, lege-estaldurarik gabe utzi du maila handiagoko arau batek –Hitzarmenaren hamaikagarren xedapen gehigarriak, hain zuzen ere–. Zehazki, lege-estaldurarik gabe eta justifikaziorik gabe gelditzen da 2012ko maiatzaren 7ko akordio horretako IV. eranskineko bosgarren atalean ezarritakoa, funtsik gabe ezartzen duena Nafarroak Estatuari urtean 25 milioi euro ordaindu behar dizkiola.

Horretaz gain, azpimarratu beharra dago Hitzarmenaren Batzorde Negoziatzailearen erabakiak ez direla administrazio-prozedura bati amaiera ematen dioten behin betiko erabakiak –hartara, ezin dira halakotzat hartu–, zeren behin betiko erabaki izaera aurki baitaiteke BEZari eta zeharkako zergei dagokienez urtero egiten den doikuntzan soilik, zeina urtero martxoan egiten baita. Auzi hori funtsezkoa da, halaber, UPyDk planteatzen duen kasazio errekurtsoren izapidetzeari aurre egitean aipatzeko.

Hori guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du baliorik gabe utz dezan Nafarroako Hitzarmenaren Batzorde Koordinatzailearen 2012ko maiatzaren 7ko erabakiaren luzapena, batzorde horretan 2019ra bitarte adostutakoa, erabaki horren IV. eranskineko bosgarren atalari dago-kionez; izan ere, erabaki hori lege estaldurarik gabe eta inplizituki indargabetuta gelditu da egungo Hitzarmen Ekonomikoaren hamaikagarren xedapen gehigarriaren eraginez, eta luzapen hori mantentzeak berekin ekarriko lukeelako Nafarroak Estatuari justifikaziorik gabe ematea urtero 25 milioi euro, bost urtez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du negoziazio urgente bat proposa dezan, Nafarroak Estatuari 2012ko maiatzetik gaur arte emandako zenbatekoen itzulketari buruzkoa, Hitzarmenaren Batzorde Koordinatzailearen 2012ko maiatzaren 7ko erabakiaren IV. eranskineko bosgarren atalean adostutakoan oinarrituta –urtean 25 milioi euro–, zeren ordainketa horiek justifikaziorik gabeak eta lege estaldurarik gabeak baitira, Hitzarmen Ekonomikoaren hamaikagarren xedapen gehigarria lege mailarekin onetsi ondoren.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2015eko urtarrilaren 22ko epaiaren aurka UPyDk iragarri duen kasazio errekurtsoren izapidetzean argudia dezan, Gobernu ordatzkatzen duten teknikariek juridikoki bidezkotzat jotzen dituzten argudioez gain, Hitzarmenaren Batzorde Koordinatzailearen erabakiak ez direla behin betikoak.

Iruñean, 2015eko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren inbertsioak ezar eta egin ditzan, Reina Sofía Ospitalearen gabeziak konpontzeko, eta Erriberako osasun etxe eta anbulatorioetako analitika guztiak Reina Sofía Ospitaleko laborategian mantentzen ditzan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2015eko martxoaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren inbertsioak ezar eta egin ditzan, Reina Sofía Ospitalearen gabeziak konpontzeko, eta Erriberako osasun etxe eta anbulatorioetako analitika guztiak Reina Sofía Ospitaleko laborategian mantentzen ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urgentziaz ezar eta egin ditzan

beharrezkoak diren inbertsioak, Reina Sofía Ospitalearen gabeziak konpontzeko: bosgarren solairua onkologiako eguneko ospitalerako egokitzea, eta bertan ekografiak, mamografiak eta abar egin ahal izateko baliabide teknikoak eta giza baliabideak paratzea.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Erriberako osasun etxe eta anbulatorioetako analitika guztien egitea mantentzeko Reina Sofía Ospitaleko laborategian, zeinak argi erakutsi baititu bere kalitatea eta efizientzia".

Iruñean, 2015eko martxoaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Tafallako "Marqués de la Real Defensa" ikastetxe publikoaren gabeziei buruz, eta gabezia horiek konpon ditzan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2015eko martxoaren 5ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Tafallako "Marqués de la Real Defensa" ikastetxe publikoaren gabeziei buruz, eta gabezia horiek konpon ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan hiru hilabeteko epean, Tafallako "Marqués de la

Real Defensa" ikastetxe publikoaren gabeziei eta gabezia horiek segurtasunean nahiz irakatsi eta ikasteko prozesuaren garapen egokian izan ditzaketan ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du udalarekin lankidetzan ezar dezan zer jarduketa egin behar diren, eta zer epetan, instalazioen egoera duin bat bermatzeko, Tafallako "Marqués de la Real Defensa" ikastetxe publikoaren egungo gabezia garrantzitsuei konponbide bat emanez".

Iruñean, 2015eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proiektu balioaniztun eta berritzaile bat taxutu dezan, Iruñeko San Frantzisko ikastetxe publikoko patioa estaltzeko.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2015eko martxoaren 5ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proiektu balioaniztun eta berritzaile bat taxutu dezan, Iruñeko San Frantzisko ikastetxe publikoko patioa estaltzeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean eta Iruñeko San Frantzisko Xabierkoa ikastetxeke hezkuntza-erkidegoarekin eta udalarekin lankidetzan taxutu dezan proiektu balioaniztun eta berri-

tzaile bat patioa estaltzeko, jolaserako eta gorputz hezkuntzako eskolak emateko eremu erabilgarri handiago bat sortzea ahalbidetuko duena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behin-behineko konponbide bat eman dezan, karpa bat edo gisako zer-bait paratuz, patio-erdia estaltzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzako protokoloak ezar ditzan, ikastetxearen inguruetan jolas-ordue-tarako eremuak egokitzeko –Ezpeleta Jauregian eta San Frantzisko Plazan–.

Iruñean, 2015eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, azalera handiko saltokien gaineko zerga dela-eta Europar Batzordeak emandako ultimatumari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, azalera handiko saltokien gaineko zerga dela-eta Europar Batzordeak emandako ultimatumari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak martxoaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer egingen du azalera handiko saltokien gaineko zerga dela-eta Europar Batzordeak emandako ultimatumari dagokionez?

Iruñean, 2015eko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Club Atlético Osasuna-ren kontuetan detektatutako irregulartasunei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AiestARAN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Club Atlético Osasuna-ren kontuetan detektatutako irregulartasunei buruzkoaburuzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Club Atlético Osasuna-n detektatutako ustezko irregulartasunak ezagutu ostean, Nafarroako Gobernuak berretsi egiten al du Club Atlético Osasuna-k Nafarroako Foru Komunitatearekin daukan zorra berregituratzeko foru legea izapidetu bitartean izandako adostasuna?

Iruñean, 2015eko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, jakitekoa nola kudeatu dituzten Osasun Departamentuak eta La Caixak HIESarekin lotutako prebentzio eta jarduketa programetarako Gobernu Kanpoko Erakundeei emandako dirulaguntzak.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa nola kudeatu dituzten Osasun Departamentuak eta La Caixak HIESarekin lotutako prebentzio eta jarduketa programetarako Gobernu Kanpoko Erakundeei emandako dirulaguntzak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, martxoaren 12ko Osoko Bilkuran Osasuneko kontseilari Vera andreak ahoz erantzun dezan:

Zioak

2013tik aitzina, Gobernuak % 55 murriztu du HIESarekin lotutako prebentzio eta jarduketa programetarako kontusaila. Eman ziren azalpenen arabera, akordio bat erdietsi zen La Caixa-rekin, entitate horrek bere gain har zezan parte bat, halako moduan non murrizketa, guztira, % 18koa izanen baitzen. Hasieratik bertatik, arlo horretan lan egiten duten GKE-ei adierazi zieten akordio bat zegoela –antza denez, ahozkoa zen, ez baita inolako agiri idatzirik jasota ageri–, eta La Caixa bere parte bete ezean Osasun Departamentua arduratuko zela."

2013an, akordioa bete zen, baina kostata; izan ere, La Caixa-k ez zuen bere parte abendura arte jarri.

2014an, aldiz, ez du akordioa bete, La Caixa-k entitate batzuei ordaindu dielako, baina beste batzuei ez. Kobratu ez dutenen artean dago "Gozamenez" programa, zeinari 13.000 euro zor baitzaizkio. Osasun Publikoaren Institutuko HIESaren Programako teknikariek diote ez dagoela konpontzeko modurik, La Caixa-n ez dagoela solaskide baliagarririk, ez dagoela ezer idatzirik, eta haiek ezin dutela ezer egin. Kontua da "Gozamenez" programak diru hori jada gastatu duela eta diru hori zor zaiola.

Alde batetik, argi dago Osasun Departamentuak ahozko konpromiso bat zeukala, eta ez duela bete. Eta beste alde batetik, eta hori larriagoa da, auzi honetan dagoen ilunkeria dago. Ez da onargarria Osasun Departamentuak akordio bat lortzea banketxe pribatu batekin eta ez egotea inola-

ko akordio idatzirik, adostutakoa betetzera behar-tuko duenik.

Galdera:

Osasun Departamentuak eta La Caixa-k nola kudeatu dituzte HIESarekin lotutako prebentzio eta jarduketa programetarako GKE-entzako dirulaguntzak? Zer akordio mota egin zen finantza-entitatearekin? Nork eta noiz ordainduko ditu zenbait entitaterik hitz emandako zenbatekoak (esate baterako, "Gozamenez" programan jada gastatutakoak)? La Caixa-k bere parte bat betetzen ez badu, Departamentuak bere konpromisoa beteko al du?

Iruñean, 2015eko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, Osasunak partidak eroste aldera egindako mugimendu ekonomikoiei dagokienez jakinaren gainean zegoen Ogasuneko teknikariari buruzkoa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Osasunak partidak eroste aldera egindako mugimendu ekonomikoiei dagokienez jakinaren gainean zegoen Ogasuneko teknikariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Maite Esporrín Las Heras-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den martxoaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Hedabideen bidez jakin dugunez, Ogasuneko teknikari bat jakinaren gainean zegoen Osasunak partidak eroste aldera egindako mugimendu ekonomikoiei dagokienez. Nafarroako Gobernuak identifikatuta al dauka Ogasuneko teknikari hori? Nola da posible Nafarroako Gobernuak horri buruz ezer ez jakitea, baldin eta Ogasuneko teknikari batek han gertatzen ari zenaren berri bazuen?

Iruñean, 2015eko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, partidetakoa emaitzetan marro egiteko Club Atlético Osasuna-tik eskudirua ateratzen zela bazekien Ogasuneko ikuskatzaileari buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, partidetakoa emaitzetan marro egiteko Club Atlético Osasuna-tik eskudirua ateratzen zela bazekien Ogasuneko ikuskatzaileari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleónek

gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Ogasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hedabideetan argitaratu denaren arabera, Club Atlético Osasuna-ko kudeatzaile ohi Ángel Vizcayk Futbol Profesionalaren Ligan aitortu du gutxienez ere Ogasuneko ikuskatzaile batek bazekiela klubetik eskudirua ateratzen zela partidetakoa emaitzetan marro egiteko.

Hori guztia ikusita, ondokoa galdetzen dugu:

Foru Ogasunak ba al zuen horren berri? Foru Ogasunak inolako jarraibiderik eman al du eskudirua askoren ateratze horiek eduki behar zuten tratamendu fiskalari dagokionez? Zer egingen du Gobernuak horri buruz?

Iruñean, 2015eko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

